


Sormen beka feminista

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

ARRASATEKO EMAKUME TXOKOA

OINARRIAK



AURKIBIDEA

01.	Dirulaguntzaren xedea eta baldintzak.....	03
02.	Sormen bekaren onuradunak	04
03.	Sormen bekaren zenbatekoa.....	05
04.	Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.....	06
05.	Eskaerak nola egin: Baldintzak, epea, modua eta aurkeztu beharreko dokumentazioa	07
06.	Balorazio irizpideak.....	09
07.	Bpaimahaia	10
08.	Ebazpena eta jakinarazpena	11
09.	Dirulaguntzaren ordainketa	12
10.	Sormen bekaren onuradunaren betebeharrak	13
11.	Dirua itzultzea	14
12.	Bekaren irabazlearen lanaren zabalkundea.....	15
13.	Datuen babesa	16
14.	Oinarriak onartzea.....	17
15.	Klausula gehigarria.....	18

DIRULAGUNTZAREN XEDEA ETA BALDINTZAK

Deialdi honen xedea da Arrasateko Udaleko Berdintasun Sailak antolatutako Sormen Kultural Feministaren bekaren prozedura arautzea.


Sormen beka honen helburua da, besteak beste, ikuspegi feminista duen sormena sustatzea, emakume sortzaileei sortzen laguntzea, emakume sortzaileen ikusgarritasuna areagotzea, ikuspegi feministadun eta ikuspegi interseksionala kontuan hartzen duen kultur eskaintza zabaltzea.

Sormen kulturaltzat ulertzen da irudimenetik, sormenetik edo lan artistikotik eratorritakoa, eta honako diziplina hauek barne hartzen ditu, beste batzuen artean: musika, pintura, eskultura, literatura, antzerkia, zinema, komikia, soinu-konposizioa, ikus-entzunezkoak, sormen digitala, dantza, eta abar.

Beka honek sormen lana diruz lagunduko du. Horrez gain, sormen lanaren emaitza argitaratu edo zabaldu egin beharko da. Zabalakundeak sortzen dituen gastuak Arrasateko Udalak hartuko ditu bere gain, betiere aurrekontu mugatu baten barruan eta epaimahaiaren aldez aurreko onarpenarekin.

Deialdira aurkezten diren lanek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- ◆ Jatorrizko sormen lanak izan beharko dira.
- ◆ Hitzak dituzten sormen lanen kasuan, lanak euskaraz bakarrik izan beharko du.
- ◆ Aurkezten den proposamenean, sormen lana bera eta emaitza nola zabalduko den jaso beharko dira.




SORMEN BEKAREN ONURADUNAK

Beka hau emakumeei zuzenduta dago. Taldeka aurkezten bada, nortasun juridikorik gabeko pertsona fisikoen taldeak izan beharko dira. Edonola ere, taldea osatzen duten kide guztiak emakumeak izan beharko dira.

Eskatzaile bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du.

Baldintzak:

- ◆ Eskatzaileak 18 urte baino gehiago izan beharko ditu eskaera egiteko unean.
- ◆ Eskatzailea sortzaile berria izan beharko da, eta euskaraz komunikatzeko gaitasuna izan beharko du.
- ◆ Taldeen kasuan, taldea sortu berria izan beharko da, eta parte hartzaileen bi herenak gutxienez sortzaile berriak izan beharko dira.
- ◆ Sortzaile berri kontsideratuko da aurretik bere lana gehienez behin aurkeztu duena zirkuitu profesionaletan.





SORMEN BEKAREN ZENBATEKOA

Bekaren zenbatekoa honakoa izango da: 10.000 € sorkuntzarako.

Sormen beka honako aurrekontu partidaren kontura emango da: 1.1330.480.231.51.00.2026 (2123).

Epaimahaiak erabaki ahal izango du beka-
ren zenbateko osoa proiektu bakar bati eman
beharrean, hainbat proiekturen artean bana-
tzea edo proiektu bakar bati zenbatekoaren
zati bat soilik ematea.

Bekaren irabazleak edo irabazleek beren lana
aurrez adostutako lekuan eta orduan zabaldu
beharko dute, betiere Arrasaten eta herrita-
rren aurrean.


Epaimahaiak uste badu aurkeztutako proiektu-
tuen artean ez dagoela behar adinako kalita-
terik, beka ez ematea erabaki ahal izango du.

Era berean, epaimahaiak bekaren onuradu-
nek aurkeztutako lanak kalitate nahikorik ez
duela edo egokia ez dela iritziz gero, lana ez
zabaltzea erabaki ahal izango du.

04

BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauen arabera emandako bekak bateragarriak izango dira helburu berarekin emandako beste beka edo dirulaguntza batzuekin, betiere gainfinantzaketarik gertatzen ez bada.





ESKAERAK NOLA EGIN: BALDINTZAK, EPEA, MODUA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

Eskaera egiteko beharrezkoak diren galdetegiak eta ereduak Arrasateko Udalaren webgunean egongo dira eskuragarri.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Eskaera orria, honako datu hauekin:

- ◆ Parte hartzailearen edo parte hartzaileen izen-abizenak.
- ◆ Harremanetarako informazioa.
- ◆ Proiektuaren azalpena, honako eduki hauekin:
 - ◆ Proiektuaren izena.
 - ◆ Sormen lana egiteko motibazioa: 1 eta 3 orrialde artekoa, PDF formatuan, Times New Roman letra-tipoan, 12 puntuko tamainan eta 1,15eko lerroartearekin.
 - ◆ Memoria: 2 eta 6 orrialde arteko txostena, PDF formatuan, Times New Roman letra-tipoan, 12 puntuko tamainan eta 1,15eko lerroartearekin.
 - ◆ Zabalkunde proposamena: 2 eta 4 orrialde arteko dokumentua, PDF formatuan, Times New Roman letra-tipoan, 12 puntuko tamainan eta 1,15eko lerroartearekin. Dokumentu honek obra nola zabalduko den azaldu beharko da, zein euskarritan egingo den eta zabalkundeak ekarriko dituen gastuen estimazioa jaso beharko da.
 - ◆ Proiektua jatorrizkoa dela egiaztatzen



duen zinpeko adierazpena.

- ♦ Aurkeztutako proiekturako beste diru-laguntzarik eskatu edo jaso den ala ez adierazten duen zinpeko adierazpena.


2. Eskaera orriarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- ♦ Eskatzailearen NANaren fotokopia (edo taldearen ordezkariarena).
- ♦ Eskatzailea edo eskatzaileak Arrasaten erroldatuta daudela egiaztatzen duten agiriak.
- ♦ Sortzailearen curriculum, eta taldearen kasuan, kide guztiena, orain arte argitaratutako lanak edo egindako lankidetzak bereziki aipatuta.
- ♦ Balorazioa egiteko beharrezkoa ikusten den bestelako dokumentazioa.

Epaimahaiak, komenigarria ikusten badu, informazio osagarria eskatu ahal izango die proposamenak aurkeztu dituztenei.

Eskatzaileak aurkeztutako eskaeran akatsak badaude, horiek zuzentzeko 10 eguneko epea emango zaio, jakinarazpena bidaltzen denetik zenbatuta.

Sorkuntza prozesuaren iraupena gehienez 9 hilabetekoa izango da, bekaren esleipenaren ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Nolanahi ere, jarraipen batzordeak hala erabakitzen badu, beste 3 hilabeteko luzapena eman ahal izango da.





BALORAZIO IRIZPIDEAK


Aurkeztutako proiektu edo sorkuntza lanak honako irizpide hauen arabera baloratuko dira:

- ◆ Proiektuaren kalitatea, originaltasuna, bideragarritasuna eta izaera berritzailea: 0–30 puntu.
- ◆ Zabalkunde proposamenaren kalitatea, originaltasuna eta bideragarritasuna: 0–15 puntu.
- ◆ Proiektuaren zabalkunde gaitasuna: 0–10 puntu.
- ◆ Bi diziplina kultural edo gehiago erabiltzea: 0–5 puntu.
- ◆ Ikuspegi intersektzionala izatea edo gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen errealitatea kontuan hartzea: 0–10 puntu.
- ◆ Gaur egungo feminismoan edo mugimendu feministaren agendan lehentasunezkoak izan daitezkeen gaiekin lotutako sorkuntza lanak izatea: 0–10 puntu.
- ◆ Arrasaten gutxienez urtebetez errolatuta egotea. Taldeen kasuan, parte hartzaileen erdiak, gutxienez, baldintza hori betetzea: 5 puntu.

Beka puntuazio altuena lortzen duen proiektuari emango zaio, eta gutxienez 30 puntu lortu beharko dira.

Epaimahaiak hautagaiei proposamena defendatzeko eskatu ahal izango die.

Bi hautagai edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, epaimahaiak elkarrizketa baten bidez hartuko du erabakia.





EPAIMAHAIA

Epaimahai batek ebaluatuko eta hautatuko ditu aurkeztutako proiektuak.

Epaimahaia honela osatuko da:

- ◆ Lehendakaria: Feminismo eta LGTBI+ Batzordeko burua, boto bakarrarekin. Berdinketa gertatuz gero, kalitate botoa izango du.
- ◆ Bokalak:
 - ◆ Arrasateko Mugimendu Feministako ordezkari bat, boto bakarrarekin.
 - ◆ Aurkeztutako proposamenek lantzen dituzten diziplinetan adituak edo esperientzia duten pertsonak.
- ◆ Idazkaria: Arrasateko Udaleko berdintasun teknikaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Epaimahaiak, beharrezkoa ikusten badu, beste aditu, pertsona edo eragileren txostena edo iritzia eskatu ahal izango du.

Era berean, Jarraipen Batzorde bat eratuko da, proiektua behar bezala garatzen dela ebaluatzeko eta bermatzeko. Egokitzapen edo aldaketaren bat proposatzen bada, batzorde horri dagokio baimena ematea. Jarraipen Batzordeak hiru jarraipen bilera egin ahal izango ditu.

Oinarriak interpretatzean sor daitezkeen zalantzak Tokiko Gobernu Batzordeak argituko ditu.

Proposamena egitean sortzen diren zalantzak idatziz bidali beharko dira, eta idatziz erantzungo dira honako helbide honetan: **berdintasuna@arrasate.eus**.



EBAZPENA ETA JAKINARAZPENA

Aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, epaimahaiak erabakia hartuko du.

Epaimahaiak erabaki ahal izango du hautagaiek proiektuaren defentsa egin behar dutela egon daitezkeen zalantzak argitze-ko. Kasu horretan, defentsak egin ondoren hartuko da erabakia, eta proiektua aurkeztu dutenei jakinaraziko zaie.

Epaimahaiak hartutako erabakiaren aurka ez da alegaziorik aurkezteko aukerarik egongo.

Bekaren onuradunak prest egon beharko du prentsaurrekoetan edo udalak egokitzen jo-zen duen bestelako komunikazio formatu-
ren baten parte hartzeko.

Epaimahaiaren onarpena jaso ondoren, be-
karen onuradunek bederatzi hilabeteko epea
izango dute sormen lana egiteko, eta sormen
lana amaitutzat ematen denetik aurrera bes-
te sei hilabeteko epea izango dute zabalkun-
dea egiteko. Herritarren artean lana zabal-
tzeko hainbat euskarri erabili ahal izango dira.
Sortzaileak hasierako proposamenean zehaz-
tuko du hori, eta zabalkundeari dagozkion
alderdi guztiak epaimahaikideekin adostuko
dira.

Zabalkunde programa garatzeko udal eki-
pamenduak erabiltzeak sortzen dituen oi-
narrizko gastuak (beharrezko baliabide pert-
sonalak edo materialak) Arrasateko Udalak
hartuko ditu bere gain, betiere aurrekontu
muga baten barruan eta epaimahaiaren
onarpenarekin.

DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

Beka hiru epetan ordainduko da:

- ◆ % 33 ebazpena onartzean.
- ◆ Beste % 33 hiru hilabete igaro ondoren.
- ◆ Gainerako % 34a sormen prozesua amaitzen denean.

Irabazleak proiektua gauzatzen ez badu, aurrerapen gisa jasotako diru kopurua udalari itzuli beharko dio.






SORMEN BEKAREN ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

- ◆ Proiektua ezarritako moduan eta epeetan gauzatzea.
- ◆ Sormen lana lehen aldiz Arrasaten jendarean aurkeztea.
- ◆ Lanaren zabalkunderako euskarri guztietan Arrasateko Udalaren eta Emakume Txokoaren logotipoak txertatzea.

11

DIRUA ITZULTZEA

Onuradunak oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, edozein kasutan, jasotako dirulaguntza itzuli egin beharko du.






BEKAREN IRABAZLEAREN LANAREN ZABALKUNDEA

Deialdi honetan parte hartzeak honako zabalkunde baldintzak onartzea dakar:

- ◆ Arrasateko Udalak proiektuari buruzko informazioa edozein formatutan argitaratu ahal izango du, paperean zein euskarri digitalean.
- ◆ Arrasateko Udalak sormen lanen irudiak erabili ahal izango ditu webguneetan, sare sozialetan edo argitalpenetan zabalkunderako, betiere osorik ez bada eta lanaren jabetza aipatuta.
- ◆ Aurkeztutako proiektuaren jabetza intelektualari buruzko erreklamazioen bat balego, proiektua aurkeztu duen pertsona izango da horren erantzule.





DATUEN BABESA

Europako Parlamentuaren eta Kontseilua-
ren 2016/679 (EB) Erregelamenduan xedatu-
takoarekin bat etorriz, Arrasateko Udalak jaki-
narazten du Pribatutasun Politika onartzean
eta Sormen Feministaren bekarako proposa-
mena aurkeztean, Arrasateko Udalari ematen
zaiola emandako datuak tratatzeko baimen
informatua, berariazkoa, librea eta adierazia.


Datu horiei indarrean dagoen araudiak eza-
rritako segurtasun neurri tekniko eta anto-
lakuntzako neurriak aplikatuko zaizkie, eta
ez zaizkie hirugarrenei lagako, legeak hala
agintzen ez badu.

Datuen arduraduna:
Arrasateko Udala.

Posta-helbidea:
Herriko Plaza 1, 20500 Arrasate, Gipuzkoa.

Telefonia:
943 25 20 00.

Datuak Babesteko Ordezkarria: [dpd@pers.
eus](mailto:dpd@pers.eus).



OINARRIAK ONARTZEA

Eskaera aurkezteak deialdi honetako oinarrietan zehaztutako baldintzak berariaz eta formalki onartzea dakar.



KLAUSULA GEHIGARRIA

Deialdi honetan jasotzen ez diren gai guztietan Arrasateko udalaren dirulaguntzak ematea eta kudeatzea arautzen duen ordenantzan ezarritakoa izango da aplikagarria, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak garatu duen erregelamendu eta bat datozen gainerako lege arauetan ezarritakoa.



